



TXOSTEN METEOROLOGIKOA –2018KO IRAILA

Iraila oso lehorra eta oso beroa izan zen. Beroa izan zen hizpide. Ohikoa denarekin alderatuz gero, anomalia 2 °C-koa izan zen, hortaz, mende honetako irailik beroenetariko bat izan zen. Abisuei dagokienez, nahikoa lasaia izan zen, eta gehienak prezipitazio handiagatik igorri ziren. Hala ere, ez ziren udako aurreko hilabeteetan izandako gertaerak bezain esanguratsuak izan. Beroa izanagatik, hilabetearen bukaeran temperatura minimo oso baxuak neurtu ziren, urte sasoi honetarako ezohikoak. Izan ere, denboraldian izotza egin zuen lehen aldiz Arabako mendietan.

Prezipitazioa

Iraila oso lehorra izan zen ia EAE osoan, bereziki mendebaldean. Bertan, ohikoa denarekin alderatuz gero, portzentajeek ez zuten %20-30 gainditu. Alabaina, Arabako Mendialdean eta Arabako Errioxan, kalifikazioa ohiko balioetara gehiago gerturatu zen. Euri gehien egin zuen lekuetan ez zituzten 60 mm-ak gainditu, horiek Donostiako eskualdean daude (Eskas 58.2 mm, Miramon 57.4 mm, Oiartzun 56.2 mm). Balio hauetatik gertu daude Bizkaia barnealdeko mendi inguruetan sakabanatutako estazio batzuk (Kapildui 49.1 mm, Trebiño 47.4 mm), eta baita Arabako Errioxan ere (Moreda 42.5 mm, Páganos 33.8 mm).

Euri-egunak (≥ 1 mm) ohikoa denaren erdia izan ziren, 6 inguru kantauri isurialdean eta 3 mediterraneo isurialdearen erdialdean. Salbuespenak mendebaldeko eskualdeetan daude, bertan 1 edo 2 egun baino ez ziren zenbatu, Bilbo Handia barne; Arabako Errioxan, batezbestekoa baino zertxobait gehiago izan ziren, 5 egun inguru.

Denboraldirik azpimarragarriena hilaren 4tik 9ra bitartekoa izan zen. Egunero zaparrada trumoitsuak bota zituen, baina ez toki guztietan.

Hilaren 4an, hegoaldetik ekaitz-lerroak sartu ziren eta EAERen ekialdean eragin zuten. Handienak isurialdeen banalerroko mendien inguruan bota zituen, Gipuzkoa eta Araba artean (Zegama 20.7 mm/h, Agauntza 19.6 mm/h, Ordizia 11.3 mm/h, Etura 8 mm/h). Hurrengo egunean, zaparradak botatzen jarraitu zuen eta soilik EAERen mendebaldean egon zen ateri; zaparrada mardulenak Gipuzkoan bota zituen (Miramon 14.5 mm/h, Ereñozu 11.6 mm/h, Lasarte 11 mm/h).

Hilaren 9a izan zen esanguratsuen, iraila osoan prezipitazio oso ugaria egin zuen egun bakarra izan baitzen (Otxandio 40.1 mm, Trebiño 32.3 mm, Kapildui 29.6 mm). Eta prezipitazio guzti hori ordubete pasatxoan jaso zen. Hain zuzen ere, eguerditik aurrera EAE barnealdean hodei konbektiboak garatu ziren eta barnealdeko mendietan zaparrada handiak edo oso handiak utzi zituzten (Otxandio 39 mm/h, Trebiño 29 mm/h, Kapildui 18.6 mm/h, Zaldiaran 17.6 mm/h, Arrasate 13.3 mm/h), tximista ugarirekin eta txingorrarekin.



Denboraldi horretatik kanpo, hilaren 17an, arratsaldean, Iberiar sistematik zaparrada trumoitsoak iritsi ziren Arabako Errioxara eta Burgos iparraldetik Bizkaia mendebaldera, eta ertainak izan ziren, zenbait tokitan 10 mm/h-tik gorakoak (Moreda 12.7 mm/h, Herrera 11.3 mm/h, Punta Galea 11.1 mm/h, Páganos 10.1 mm/h).

Taula 1: Azken urteetan irailean pilatutako prezipitazioa, Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.

	2018	2017	2016	2015	2014	2013	2012	2011	2010	2009
Deusto	8.5	66.7	83.3	39.9	18.0	63.5	49.7	26.8	55.1	102.5
Lasarte	53.3	111.2	112.5	44.9	58.0	80.8	79.8	146.4	55.3	151.1
Arrasate	33.6	60.1	70.9	50.1	54.6	44.9	57.3	23.4	45.1	155.9
Abetxuko	10.7	15.5	37.6	27.6	95.2	19.0	29.7	15.6	24.6	106.8
Páganos	33.8	2.9	19.5	20.3	46.2	21.6	40.3	14.2	19.2	44.7

Tenperatura

Batez besteko tenperaturaren arabera, hilabetea oso beroa izan zen. Kostaldean 20 °C ingurukoa izan zen eta Arabako lautadan 19 °C-ra hurbildu zen, hau da, 1981-2010 ohiko aldiaren batezbestekoa baino 2 °C altuagoa EAE osorako. Mende honetako irailik beroenetariko bat izan zen -2011n eta 2014an antzeko balioak jaso ziren-, bereziki mediterraneo isurialdearen erdialdean. Bertan, serie historikoen markatik oso gertu egon zen (lehenengo postuan 1987 urtekoa dago).

Egun beroak hotzak baino gehiago izan ziren, argi eta garbi. Horien artean hilaren 17a nabarmentzen da, orduan hilabeteko baliorik altuenak neurtu ziren kantauri isurialdean, 34-36 °C artekoak kostaldeko eta kantauriko bailaretako toki askotan (Aranguren 36.9 °C, Eitzaga 36.3 °C, Deusto 36 °C, Ibai Eder 35.6 °C, Lasarte 34.3 °C). Mediterraneo isurialdean egunik beroena hilaren 2a izan zen, maximoak 32-35 °C artekoak izan ziren, altuenak Ebro ibarrean (Moreda 34.9 °C, Zambrana 34.1 °C, Espejo 33.2 °C, Salvatierra 32.9 °C, Kanpezu 32.7 °C).

Hilaren 24an, tenperatura maximoak asko jaitsi ziren. Egun hura eta hurrengo hilabeteko egunik hotzenak izan ziren. Hilaren 25ean, goizaldean, tenperatura 3 °C ingurukoa izan zen Araba barnealdean (Salvatierra 2.4 °C, Sarria 2.6 °C, Egino 3.1 °C, Antoñana 3.4 °C, Ozaeta 3.8 °C), nahikoa ezohikoa urte sasoi honetan. Kostaldetik gertu dauden zenbait tokitan, tenperatura 10 °C-tik jaitsi zen lehenengo aldiz, maiatzetik ez zen hori gertatzen. Aldi bateko beherakada izan zen, hilabetearen bukaeran hegoaldeko haizeak tenperatura igoarazi baitzuen, eta balio beroak neurtu ziren berriro. Araba erdialdeko zenbait tokitan minimo absolutuak hilaren 30ean neurtu ziren, eta denboraldian lehen aldiz



egin zuen izotza. Oso puntuala izan zen eta Iturrietako mendietan soilik neurtu zen balio negatiboa (Iturrieta -0.4 °C, Pagoeta 1.8 °C, Navarrete 2.3 °C). Zonalde horretarako ere ez da oso ohikoa hain goiz izotza egitea. Mende honetan, soilik hiru urtetan gertatu zen hori: 2005ean, 2010ean eta 2004an (2005ean behin baino gehiagotan gertatu zen eta temperatura -2 °C-ra iritsi zen).

Temperatura horiez gain, intsolazioa urteko sasoi honetan ohikoa dena baino askoz handiagoa izan zen: kantauri isurialdean %15-25 handiagoa eta mediterraneokoan %30-35 handiagoa.

Taula 2: Irailean, azken urteetan, neurtutako batez besteko temperatura Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.

	2018	2017	2016	2015	2014	2013	2012	2011	2010	2009
Deusto	20.6	17.6	20.4	18.2	21.3	19.8	19.7	20.8	18.8	18.9
Lasarte	19.3	16.8	19.1	16.6	19.0	18.7	18.7	19.6	17.7	17.4
Arrasate	18.9	15.6	18.4	15.2	19.5	17.6	17.6	18.8	16.7	17.6
Abetxuko	18.3	15.1	17.8	15.0	18.2	17.2	17.1	18.0	15.9	16.5
Páganos	19.1	16.6	19.0	15.9	19.2	17.9	17.5	20.0	17.5	17.4

Haizea

Hego-osagaiko haizea nagusitu zen, batez ere ekialdekoa, ahula. Iparraldeko haize ahula ere ibili zen, eta kostaldean brisa.

Muturreko meteorologiaren atalaseak bitan baino ez ziren gainditu haizeagatik. Lehenengoa hilaren 9an; orduan 112.5 km/h-ko bolada neurtu zen Gasteizen, baliteke ingelesez *downburst* moduan ezagutzen den fenomenoagatik gertatu izana, hau da, trumoi-hodeietatik edo hodei konbektiboetatik irteten den beheranzko aire korrante oso indartsu batek eragindakoa izatea. Bigarrena hilaren 26an, Ilarduian, 80.3 km/h-ko haize-bolada neurtu zen, hego/hego-ekialdeko egoera batekin, Europa erdialdean zegoen antizikloi indartsu batek eragindakoa. Egun hartan EAeko beste zenbait haizeguneetan ere 80 km/h-ko muga gainditu zuten haize-boladek (Herrera 87.8 km/h, Matxitxako 86 km/h, Oiz km/h).

Hilaren 17an ere, ia atalaseak gainditu ziren. Hego-mendebaldetik iritsi ziren ekaitzek haize-bolada oso gogorrak eragin zituzten, gehienbat Bilbo Handian, Arabako Mendialdena eta Arabako Errioxan (Punta Galea 99.4 km/h, Moreda 76.7 km/h, Orduña 75.6 km/h, Navarrete 72.4 km/h, Kanpezu 71.3 km/h).



Analisia

Irailaren 1etik 3ra

Irailaren hasiera abuztuaren bukaera bezalakoa izan zen, giro egonkorra eta eguzkitsua nagusitu zen, Europa erdialdean kokatutako presio altuei eta 500 hPa-eko mailan Britainiar uharteetan kokaturiko dortsalari esker. Zerua hodei gutxirekin egon zen.

Irailaren 4tik 7ra

Hilaren 4an egoera aldatu egin zen. Europa erdialdeko presio altuak desagertu egin ziren eta Atlantikoko antizikloia indartu zen. Presio altuen eremutik fronte hotz bat sartu zen, 500 hPa-eko mailan sortutako aska txiki baten isla. Hala eta guztiz ere, hilaren 4ko ordu gehienetan eguraldia lasaia izan genuen eta ostarte zabalak nagusitu ziren eguneko erdiko orduetan. Iluntzetik aurrera, Burgos iparraldetik eta Errioxatik zaparradak iritsi ziren, H-I norabidearekin, eta batez ere Araba hegoaldean izan zuten eragina. Hilaren 5ean, iparraldeko haizea nagusitu zen eta zerua oso hodeitsu egon zen, batez ere kantauri isurialdean. Zaparradak bota zituen eta ekaitz batzuk ere sortu ziren. Hilaren 6an, 500 hPa-eko mailan haizeak ipar-mendebaldera egin zuen aska txiki bat igaro zelako; orduan kantauri isurialde osoan bota zituen zaparradak, baina bereziki kostaldean, bertako zenbait tokitan handiak izan ziren. Hilaren 7an, antizikloia Europarantz mugitu zen eta eguraldiak hobera egin zuen.

Irailaren 8tik 9ra

Egun horietan, lurrazalean, presio altuak Frantzia eta Europa erdialdearen artean kokatu ziren, eta Iberiar penintsularen hegoaldean depresio txiki bat askatu zen. Horrela, hilaren 8an, egunaren ordu gehienetan zerua hodei gutxirekin egon zen. Hego-ekialdeko haizeari esker, 850 hPa-eko mailan tenperatura 15-16 °C-ra igo zen eta lurrazalean 30 °C-ra igo zen toki askotan. Alabaina, penintsula hegoaldeko depresio askeak ezegonkortasuna eragin zuen eta Burgos iparraldean nukleo konbektiboak sortu ziren, Araba hegoaldean eragin zutenak. Hilaren 9an, arratsaldean, ibilbide jakinik ekaitzak garatu ziren isurialdeen banalerroan eta Arabako Lautadan.

Irailaren 10etik 16ra

Hilaren 10ean, eguraldiak egonkortzera egin zuen, hala ere, goizean behe-hodei ugari agertu zen, baina berehala desegin eta arratsaldea eguzkitsua izan zen. Hilaren 11n, giro eguzkitsua jarraipena izan zuen eta tenperatura nabarmen igo zen; 850 hPa-eko mailan 15 °C-koa izan zen eta hego-ekialdeko haize ahula ibili zen. Iberiar penintsularen ekialdean ezegonkortasun zonalde txiki bat zegoen, eta, ondorioz, arratsaldean bero-hodei batzuk sortu ziren, bereziki Pirinio aldean eta Iberiar sisteman, bertan ekaitz handiak izan ziren. Hilaren 12tik 16ra eguraldi egonkorrak jarraipena izan zuen, presio altuak Kantauri itsasotik Europa erdialderaino zabaltu ziren eta tenperatura ez zen gehiegi igo iparraldeko haizeagatik. Iparraldeko haizeak kantauri isurialdean behe-hodeiak sortzea erraztu zuen goizean goiz eta arratsaldetan, bereziki hilaren 13an, 14an eta 16an.



Irailaren 17a

Presio altuak Europa erdialdean zentratu ziren eta Kantauri itsaso osoan hegoaldeko haizea ibilarazi zuten. 850 hPa-eko mailan, tenperatura 20 °C-ra igo zen eta hegoaldeko haizea ibili zen lurrazalean, beraz tenperatura asko igo zen, 35 °C-ra kantauri isurialdean. Arratsaldean ezegonkortasun eremu baten ondorioz ekaitzak sortu ziren, eta bereziki Bizkaian izan zuten eragina.

Irailaren 18tik 23ra

Hilaren 18an Europa erdialdeko presio altuak ekialderantz mugitu ziren eta gradiente txikiko eremuan geratu zen EAE; aintzira barometrikoa nagusitu zen eta penintsulan baxu termikoa sortu zen. Haizeak ipar-mendebaldera egin zuen eta kantauri isurialdean tenperatura asko jaitsi zen, bereziki kostaldean, non termometroa, aurreko eguneko balioekin alderatuz gero, 12 °C jaitsi zen. Mediterraneo isurialdean maximoak ia ez ziren jaitsi. Arratsaldean, ipar-mendebaldeko haizea ibili zen, eta ondorioz behe-hodei ugari sortu zen; gauean zerua estalita geratu zen ipar isurialdeko toki gehienetan. Bestalde, hego isurialdean, bero-hodei batzuk garatu ziren, baina ez zuten garrantzizko ondoriorik ekarri. Hilaren 19an eta 20an, sinoptikoki ez zen aldaketa handirik izan eta egunaren erdiko orduetan zerua hodei gutxirekin egon zen, behe-hodeiekin goizean goiz eta egunaren azken orduetan. Azken egun hartan, tenperatura berriro igo zen lurralde osoan, bereziki kantauri isurialdearen barnealdean, non 35 °C ingurukoa izan zen zenbait tokitan. Hilaren 21ean Atlantikoko presio altuen artetik fronte hotz oso ahul bat igaro zen, eta erdi mailako hodei eta goi-hodei ugari agertu zen. Iluntzean behe-hodeiek zirimiru apur bat utzi zuten ipar partean. Hilaren 22an eta 23an presio altuak nagusitu ziren berriro. Zubi antizikloniko handi bat penintsularen mendebaldetik Europa erdialderaino zabaldu zen. 500 hPa-eko mailan gailur subtropikal bat nagusitu zen eta Afrika iparraldera zabaldu zen. 850 hPa-eko mailan beroaldietan ohikoak diren balioak izan genituen, penintsula hegoaldean ia 25 °C-ra iritsi zen eta lurraldearen hegoaldean 20 °C ingurukoa izan zen. Egoera horrekin, tenperaturak gora egin zuen berriro eta ia 35 °C-ra iritsi ziren barnealdean.

Irailaren 24a

Hilaren 24an, presio altuak ekialderantz mugitu ziren, baina Atlantikotik beste antizikloi bat sartu zen. Antizikloi indartsua zen, erdigunean 1040 hPa-eko presioarekin, eta Britainiar uharteetan zentratu zen. Gauzak horrela, gurean haizeak iparraldera egin zuen. Horrez gain, fronte hotz bat igaro zen eta eguraldia erabat aldatu zen; zerua oso hodeitsu geratu zen, euria egin zuen eta tenperatura aurreko egunean baino 12 °C baxuagoa izan zen barnealdeko toki askotan. Fronte horrek aire-masa aldaketa ekarri zuen: subtropikal kontinentaletik askoz hotzagoa eta hezeagoa zen itsasaldeko polar batera aldatu zen -850 hPa-eko mailan 6-7 °C-koa-. Hala ere, eguraldi kaskarrak 15 ordu eskas iraun zituen, hilaren 24ko arratsalde eta gauean argitzera egin baitzuen.



Irailaren 25a

Britainiar uharteetako antizikloi indartsua ekialdera mugitu zen apur bat eta zerua hodei gutxirekin egon zen. Ondorioz, temperatura minimoak 2 °C-ra jaitsi ziren Arabako zenbait tokitan eta 8 °C-ra kostaldean. Maximoak ez ziren ia igo, eki/ipar-ekialdeko haizea nagusitu zelako.

Irailaren 26tik 30era

Hilaren 26tik aurrera uda beteko giroa nagusitu zen. 500 hPa-eko mailan, omega itxurako blokeo egoera indartsu bat eratu zen, eta gailurraren erdigunea penintsulan kokatu zen. Lurrazalean presio altuko gunek ekialderantz mugitzen jarraitu zuen eta Alpeetan kokatu zen. Gainera, 850 hPa-eko mailan, gailur termiko bat sartu zen 16 °C-ko temperaturarekin. Hego-ekialdeko haizea zakartu egin zen eta temperatura 30 °C-ra igo zen toki askotan hilaren 26an, zertxobait gehiago hilaren 27an. Hilaren 28tik 30era bitartean, zerua hodei gutxirekin egon zen, baina hego-ekialdeko haizea eten egin zen eta brisa nagusitu zen. Iparraldeko haizea ibili zen kantauri isurialdean, ondorioz, temperatura nabarmen jaitsi egin zen. Behe-hodeien tarte hodeitsuak sortu ziren, bereziki ipar partean. Bestalde, aipagarria da hilaren 30ean denboraldian lehen aldiz izotza egin zuela Iturrietan, -0.4 °C neurtu ziren.


Oinarrizko datu estatistikoak

Taula 3: 2018ko iraileko balio klimatikoak, Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.

Estazioa	Batez besteko Tenp. °C	Tenp. max. °C	Tenp. max.abs. °C	Tenp. min °C	Tenp. min.abs. °C	Izotz-egunak	Pilatutako euria l/m ²	Egun batean pilatutako euri max l/m ²	Euri-egunak.
Deusto	20.6	25.3	36.0	16.9	10.7	0	8.5	4.1	2
Lasarte	19.3	24.6	34.3	15.2	8.6	0	53.3	24.1	6
Arrasate	18.9	26.6	34.4	13.6	6.4	0	33.6	19.4	6
Abetxuko	18.3	27.0	32.6	11.6	5.2	0	10.7	6.0	2
Párganos	19.1	26.3	32.5	13.4	6.1	0	34.0	13.4	5




Eguneko temperatura eta prezipitazioaren grafikoak






Prezpitazioaren jokaera


Behatutako prezpitazioa
Precipitación observada




Prezpitazio normala
Precipitación normal



Prezpitazio normalarekiko desbideratzea
Desviación respecto a la precipitación normal



Prezpitazio normalarekiko portzentaia
Porcentaje respecto a la precipitación normal





Muturreko egoerak

Irailean 8 abisu hori igozri ziren, 5 prezipitazio handiagatik, 1 kostaldeko kalteengatik eta 2 baso-sute arriskuagatik.

- Hilaren 4ko gauean, hegoaldetik ekaitz lerro batzuk sartu ziren eta EA Eren ekialdean eragin zuten. Zaparrada mardulenak isurialdeen banalerroko mendien inguruan jaso ziren, Gipuzkoa eta Araba artean (Zegama 20.7 mm/h, Agauntza 19.6 mm/h, Ordizia 11.3 mm/h, Etura 8 mm/h).
- Hilaren 5ean, zaparrada trumoitsuak bota zituen, EA Eren mendebaldean izan ezik. Handienak Gipuzkoan bota zituen (Miramon 14.5 mm/h, Ereñozu 11.6 mm/h, Lasarte 11 mm/h).

Asteazkena, hilak 5: Abisu Horia prezipitazio handiagatik 10etatik 24etara ordu lokala.

- Hilaren 8an, Iberiar sistematik zaparrada trumoitsuak iritsi ziren EA Eren barnealdera, eta batez ere Arabako Errioxan izan zuten eragina. Zaparradak ia handiak izan ziren (Moreda 14.9 mm/h, Párganos 9.2 mm/h).

Larunbata, hilak 8: Abisu Horia prezipitazio handiagatik 15etatik 24etara ordu lokala.

- Hilaren 9an, eguerditik aurrera EA Eren barnealdean hodei konbektiboak garatu ziren eta zaparrada handiak edo oso handiak bota zituen barnealdeko mendietan (Otxandio 39 mm/h, Trebiño 29 mm/h, Kapildui 18.6 mm/h, Zaldiaran 17.6 mm/h, Arrasate 13.3 mm/h), tximista ugarirekin eta txingorrarekin.
- Hilaren 9an, Gasteizeko estazioan 112.5 km/h-ko haize-bolada neurtu zen (15:30ean), eta baliteke leherketa baten ondorioa izatea (ingelesez *downburst* moduan ezagutzen da), hau da, trumoi-hodeietatik edo hodei konbektiboetatik irteten den behezko aire korrante oso indartsu batek eragindakoa.
- Hilaren 11n, olatuen altuera adierazgarria 1-1.5 m ingurukoa izan zen, eta olatuen arteko periodoa 11-12 segundukoa. Itsasgora 18:42ean izan zen (ordu lokala) eta itsasgoraren altuera 4.90 metrokoa. Gainezka egiteko indizeak: $l=5.75$ m eta $l_{max}=6$ m.

Asteartea, hilak 11: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: kostaldeko kalteak 18etatik 20etara ordu lokala.

- Hilaren 26an eta 27an, baso-sute arriskua altua izan zen EA Eren landaretzaren ihartasunagatik, tenperatura altuagatik, haizearen intentsitateagatik eta hezetasun erlatibo baxuagatik. Europa erdialdeko antizikloi sakonak haize-bolada oso gogorrak eragin zituen eta 26an, Ilarduian, 80 km/h-ren muga gainditu zuten (80.3 km/h).



*Asteazkena, hilak 26: Abisu Horia baso-sute arriskuagatik 03etatik 24etara ordu lokala.
Osteguna, hilak 27: Abisu Horia baso-sute arriskuagatik 00etatik 19etara ordu lokala.*



Terminologia

Batez besteko tenperatura: hileko batez besteko tenperatura.

- *Tenperatura maximoa*: eguneko tenperatura maximoen hileko batez bestekoa.
- *Tenperatura maximo absolutua*: hileko tenperaturarik altuena.
- *Tenperatura minimoa*: eguneko tenperatura minimoen hileko batez bestekoa.
- *Tenperatura minimo absolutua*: hileko tenperaturarik baxuena.
- *Izotz-egunak*: hilean, tenperatura 0 °C-tik behera egon deneko egun kopurua.
- *Pilatutako prezipitazioa*: hilean pilatutako prezipitazio totala.
- *Eguneko prezipitazio maximoa*: hilean, eguneko prezipitazio total altuena.
- *Prezipitazio-egunak*: hilean, estazioak ≥ 1 mm-ko prezipitazioa neurtzen dueneko egun kopurua.

Temperaturaren maiztasun-indizea (f) . Irizpidea:

- *Erabat beroa*: tenperaturak, 1971-2000ko denboraldiko balio maximoa, gainditzen duenean.
- *Oso beroa*: $f < \%20$. tenperatura, urterik beroenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Beroa*: $\%20 \leq f < \%40$.
- *Ohikoa*: $\%40 \leq f < \%60$. tenperatura erdiko balioaren inguruan aurkitzen denean.
- *Hotza*: $\%60 \leq f < \%80$.
- *Oso hotza*: $f \geq \%80$. tenperatura, urterik hotzenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Erabat hotza*: tenperatura, 1971-2000ko denboraldiko balio minimora irizten ez denean.

Prezipitazioaren maiztasun-indizea (f) . Irizpidea:

- *Erabat hezea*: prezipitazio-kopurua, 1971-2000ko denboraldiko balio maximoa, gainditzen duenean.
- *Oso hezea* $f < \%20$. prezipitazio-kopurua, urterik hezeenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Hezea*: $\%20 \leq f < \%40$.
- *Ohikoa*: $\%40 \leq f < \%60$. prezipitazio-kopurua erdiko balioaren inguruan aurkitzen denean.
- *Lehorra*: $\%60 \leq f < \%80$.
- *Oso lehorra*: $f \geq \%80$. prezipitazio-kopurua, urterik lehorrenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Erabat lehorra*: prezipitazio-kopurua, 1971-2000ko denboraldiko balio minimora irizten ez denean.

Testuan erabilitako beste termino meteorologikoen azalpena hurrengo terminologi gidan aurki daiteke:

http://www.euskalmet.euskadi.net/s07-5893/eu/contenidos/informacion/manual_estilo/eu_9900/eu_manual.html.

OHARRA: txosten honetan erabilitako datuak behin-behinekoak dira eta erabat balioztatzeke daude.